

## EGUZKITZA-REN GORAZARREA LEMOA-N

## Euskaltzainburuaren hitzak

75-XI-30

Diputazio eta Lemoa herriko jaun agintari leialak!

Euskaltzaindiko lagunak!

Jaun-Andreak!

Lemoako herri honetan biltzen da gaur Euskaltzaindia, eta biltzen da, dakizuten bezala, herri honetako seme argi bati gorazarre egin nahiz. Orain dela ehun urte herri honetan jaio bait zen Jon Eguzkitza jauna. Euskaltzale, euskal idazle eta euskaltzain izan genuen Eguzkitza. Euskaltzaindiak, bere hasierako garai hartan izan zituen jaun handienetako, jakintsu eta langileenetako bat dugu dudarik gabe Eguzkitza jauna. Eta diodan hau egiztatzeko, hor daude —besteak beste— *Eusker*a, Euskaltzaindiaren aldizkarian argitara zituen lanak. Azkue kenduz gero, Eguzkitza eta Altube dira aldizkari horretan gerra aurreko garaian lanik gehiena egin zutenak. Bietarik zeinek egin zuen gehiago, ez nuke esango. Kontuari begiratu, Eguzkitzak. Lanen luze-laburra gogoan hartuz, Altubek. Hizkuntzari begiratu, Eguzkitzak berriz ere, gehienetan euskeraz ematen bait zituen bere lanak.

Nik ez nuen Eguzkitza jauna ezagutzeko zoria izan. Eta haren bizitza eta lanak aztertzea ere ez dagokit neri. Segitun entzungo ditugun bi hizlarik hartu bait dute kargu hau beren gain. Bakar-bakarrik hauxe esan nahi dut: *Gizarte-azua* liburuaren egile dugula Eguzkitza. Soziologi gaiak, gaur hain egungo, modako eta arrunt bihurtu zaizkigunak, berak lehenbiziko aldiz, sistematikoki, eman zituen euskeraz. Ez da meritu ttikia. Besterik egin ez balu ere, horrexegatik bakarrik gogoangarri eta ezin ahaztuzkoa behar genuke izan Eguzkitza jauna.

Azaro honen lehen egunetan beste euskaltzale handi baten oroitzapena egin zen Azpeitian: Karmelo Etxegarai jaunarena. Eta hain zuzen, Karmelo jaunak gure Akademian bere sarrera-hitzaldia egin zuenean, Eguzkitza jaunak erantzun zion. Eta bere erantzun horretan ukitzen duen gaia hauxe da: Nondik etorri ote zaio euskerari gaurko bere ahulezia? Eta nondik etor dakioke sendabidea? Hitzaldi horretan ager-

tzen digu Eguzkitzak euskal kezka zenbatetaraino zeukan bihotzean landatua.

Eguzkitza jaunaren ustez, bada, honetan legoke gure gaitzaren erroa: gizarte goi mailako euskaldunek —aberats, handiki, gizon ikasi-eskolatuek, gizartean distira berezi batez nabarmentzen direnek— hoiek euskara arbuiatu egin dute, zokoratu egin dute. Herri laua eta xehea beti hoiei begira egon ohi da, eta orduan, goiz edo berandu, hori bera egiten du berak ere. Beraz, zein da, Eguzkitzaren aburuz, euskera salbatzeko bidea? Goiko jende hori euskerarentzat irabaztea. "Sendakaya ere gaitza etorri zaion bide ortatik, goitik bêra, etorri bear zaiola deritzat. Ortik ezpaletorkio, euskerarentzat beste sendabiderik ez dakust". Hala esaten digu Eguzkitza jaunak, eta honetan guztiz dator bat Eguzkitza Lizardirekin.

Nolanahi ere, euskaldun izaten segitzea edo ez segitzea, euskaltasuna gordetzea edo galtzea gure herriarentzat ez da txantxetako gauza. Entzun ditzagun berriz ere Eguzkitza jaunaren hitzak:

"Euskera dala-ta, darabilgun auzi au, nolanaiko auzia danik ez uste: galdu ala irabaziko degun ez dakit; baña auzi onen irabazte edo galtzeak, *garen ala ez erabakiko du*. Euskera zearo galduko litzaken egunean, geren izena ere galduko genuke. Bear bada, euskera guziz galdu arren ere, gure ondorengoak beren buruak euskaldun eta beren Erria Euskalerrit deituko lituzkete: izana galdu ezkeror, ordea, izen utsa zertarako da? Beartsuari aberats, beldurtiari azarri, illunari argi, gauari egun deitzea bezenbat litzake ori. Euskaldun ez lirake izango beintzat, eta euskaldun izan ezik, izen aizun ori zertarako erabili?" (Ikus *Euskera* VII (1926), I, 35,-36).

Excmas. autoridades

Miembros de Euskaltzaindia y participantes todos a este acto homenaje en memoria del escritor y académico señor Eguzkitza.

Euskaltzaindia, Academia de la Lengua Vasca, celebra con alguna frecuencia, sin periodicidad fija, sesiones públicas como es esta de hoy. Estas sesiones suelen estar motivadas por algún hecho determinante, sea el ingreso de un miembro nuevo en la Institución, sea una conmemoración centenaria, un homenaje, etc. Y ella quiere organizar siempre estos actos en unión estrecha con la Diputación de la provincia en que el

acto tiene lugar. Así en estos últimos años, en íntima unión con la Diputación Foral de Navarra, ha celebrado sendos actos en Burguete y en Urdax en memoria, respectivamente, de los escritores Larreko y Axular, y este mismo año, en unión con la Diputación de Alava, ha conmemorado en Oquendo el bicentenario de José Paulo de Ulibarri Galíndez, etc.

Como digo, para estos actos, la Academia busca siempre el patrocinio y la colaboración de la Diputación respectiva. Y lo hace así, entre otras razones, porque Euskaltzaindia fue fundada y creada efectivamente por ellas.

Fueron las cuatro Diputaciones de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya las que, como autoridades representativas del país, crearon esta Institución para que velara y guiara de algún modo los desvelos y trabajos, las iniciativas y los empeños en pro de esta vieja lengua, legado o patrimonio común, que, como bien de un pueblo, nosotros no tenemos ningún derecho a enajenar.

Asimismo, a la vez que en unión con la Diputación, Euskaltzaindia organiza estos actos siempre en colaboración con el Ayuntamiento respectivo de la localidad en que el acto se celebra.

Así esta vez lo hace en unión con la Excma. Diputación de Vizcaya, representada aquí por los Sres. Diputados Unceta y Amorrortu y con el Ayuntamiento de Lemona, cuyo alcalde Sr. Juan Llona nos honra también con su presencia. Además, y toda vez que el Sr. Eguzkitza, a quien hoy se rinde memoria y homenaje, fue sacerdote, Euskaltzaindia ha creído un deber suyo invitar al acto al Ilmo. Sr. Obispo de Bilbao.

El acto, como he dicho, rinde homenaje a la memoria de D. Juan Bta. Eguzkitza, académico, escritor vasco, sacerdote, hijo de Lemona, con ocasión de celebrarse el centenario de su nacimiento. D. Juan de Eguzkitza fue en efecto uno de los miembros más ilustres, más activos y laboriosos de Euskaltzaindia en su primera época. Al fundarse la Academia en 1919 entraron en aquella primera promoción, como académicos de número, cuatro ilustres vizcaínos: D. Resurrección M.<sup>a</sup> de Azkue (sacerdote), D. Julio de Urquijo, D. Domingo Aguirre (sacerdote) y D. Juan de Eguzkitza, sacerdote también.

A los tres anteriores Euskaltzaindia les ha rendido homenaje en diversas ocasiones, sobre todo con motivo de las

bodas de oro de la creación de la Academia o con ocasión de celebrarse su centenario respectivo.

Para terminar, que este acto sirva —y este es el último fin de estos actos públicos que organiza Euskaltzaindia—, sirva, digo, para suministrar una nueva inyección a la adhesión fervorosa y amor del pueblo de Lemona y de Vizcaya toda al euskera.

Luis Villasante  
Presidente

**EGUSKITZA MEABE, JUAN BAUTISTA (1875-1939)  
BERE BIZITZA ETA LANAK**

Eusebio Erkiaga  
*Giro-billa asieran,  
giro-billa amaieran.*

Jaunok, andreok:

Lemoako erriak, beste bere seme askoren artean, bi behintzat, euskal-idazleak ditu. Aita Kristobal Linaza Areta, 1806 gn. urtean jaioa; fraille frantziskotarra, Nafarroan, Gipuzkoan eta Bizkaian an or emen jardun ostean, azken urteetan Tolosan egon zan, eta antxe il be, 1866 gnean. Prosa ta bertszuz mamindu zituan bere lanak. Izlauezko lanak: "Visita egunerocoac aldareco Sacramentuari"; bost bedera-tziurren eta Irugarren erregela edo bizimodua be bai. Izneurtuetan barriz, 667 zortziko, "Jesucristo gure Jaunaren Pasiñoari" eskeiñiak; beste 20 zortziko "Tentaziñoac menperatzeko" eta 200, "Gizonaren bizitza errucarriaren gañeco considerazioac". (Ikus Aita Onaindiaren "Euskal-Literatura", II, 78-79 orrialdeetan).

**EGUSKITZA ZANA**

Goazan eun urte atzera, doi-doiak. Lemoan, orain Talleres deritxan auzunean zan Errotazar basetxean (1), umea jaio da zemendiaren 28 an. Egun berean, Domingo Etxebarria

(1) Errotazar basetxea mende onen asieran eratzi eben, eta an gaur, marmol lantegia da.